

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA – OFFICE PUBLIC DE LA LANGUE BASQUE

2008eko Abenduaren 17ko Administrazio Kontseilua
Conseil d'Administration du 17 Décembre 2008

Erabakien Bilduma

Euskararen Erakunde Publikoaren administrazio kontseilua 2008ko Abenduaren 17an bildu da, Max Brisson Jaunak kudeaturik, Baionako Kontseilu Orokorreko Kaserna ttipian, arratsaldeko 3etan.

Relevé de décisions

Le conseil d'administration de l'Office Public de la langue basque s'est réuni à la Petite Caserne, au siège de l'OPLB à Bayonne à 15H, le 17 Décembre 2008 sous la présidence de Mr. Max Brisson.

A] Bilkuran parte hartu dutenak :

Estadoaren izenean :

- Eric MORVAN Jauna, Baionako Suprefeta, Philippe REY Jauna, Pirineo-Atlantikoetako Prefetaren izenean
- Jean François SIBERS Jauna, DRAC-eko kontseilaria, kultur saileko eskualdeko zuzendari Jaunaren izenean

A] Ont participé à la réunion :

Représentant l'Etat :

- M. Eric MORVAN Sous-Préfet de Bayonne, représentant M. Philippe REY, Préfet des Pyrénées-Atlantiques excusé
- M. Jean François SIBERS conseiller DRAC, représentant de M. le Directeur Régional des Affaires Culturelles, excusé

Représentant le conseil régional d'Aquitaine :

- M. François MAITIA, Vice-Président du Conseil Régional représentant le Président
- Mme. Sylviane ALAUX Anderea, conseillère régionale, suppléante de M. René RICARRERE, excusé
- M. Jean LISSAR, conseiller régional

Akitania eskualdearen izenean :

- François MAITIA Jauna, Akitania Eskualdeko Lehendakari-ordea, Lehendakariaren ordezkari
- Sylviane ALAUX Anderea, eskualde kontseilaria, René RICARRERE Jaunaren izenean
- Jean LISSAR Jauna, eskualdeko kontseilari

Pirineo Atlantikoetako departamenduaren izenean :

- Max BRISSON Jauna, Pirineo Atlantikoetako Kontseilari orokor, lehendakariaren ordezkari

Euskal kultura sustengatzen duen herrien arteko sindikataren izenean:

- Jean-René ETCHEGARAY Jauna, Vincent BRU Jauna, Lehendakariaren izenean

Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluaren izenean:

- Jakes ABEBERRY Jauna, Presidentearen ordezkari

Représentant le département des Pyrénées Atlantiques :

- M. Max BRISSON, Conseiller Général, représentant le Président

Représentant le syndicat intercommunal de soutien à la culture basque:

- M. Jean-René ETCHEGARAY représentant M. Vincent BRU, Président, excusé

Représentant le Conseil des Elus du Pays Basque:

- M. Jakes ABEBERRY, Délégué du Président

B] Parte hartu dute ere :

- Xavier NORTH Jauna, gobernamenduko komisorioa
- Estebe EYHERABIDE Jauna, Euskararen Erakunde Publikoaren zuzendaria
- Dominique PONTACQ Jauna, eragile kondularia

B] Etaient également présents :

- M. Xavier NORTH, commissaire du gouvernement
- M. Estebe EYHERABIDE, Directeur de l'Office Public de la Langue Basque
- M. Dominique PONTACQ, agent comptable

C] Administrazio kontseiluan zirenak :

EEP-ko zerbitzuetatik :

- Maider BERGOUIGNAN Anderea, hizkuntza kargudun
- Naroa GOROSTIAGA Anderea, hizkuntza kargudun
- Bernadette SOULE Anderea, hizkuntza kargudun

Eskualdeko zerbitzuetatik :

- Jérémie OBISPO Jauna, hizkuntza kargudun, eskualdeko hizkuntzak

Departamenduko zerbitzuetatik :

- Jean-Claude IRIART Jauna, Zerbitzuen Zuzendari nagusia ondokoa
- Alain DEL ALAMO Jauna, Kultura, Hezkuntza eta Kiolarako Zuzendaria

C] Assistaient également

Pour les services de l'OPLB :

- Mme. Maider BERGOUIGNAN, chargée de mission
- Mme. Naroa GOROSTIAGA, chargée de mission
- Mme. Bernadette SOULE, chargée de mission

Pour les services de la Région :

- M. Jérémie OBISPO, chargé de mission, langues régionales

Pour les services du Département :

- M. Jean-Claude IRIART, Adjoint au Directeur des services
- M. Alain DEL ALAMO, DGA Culture, Education, Sport

BILKURAREN IREKITZEA

Lehendakariak gaiordena orroitarazten du :

1. Azken Administrazio Kontseiluaz geroztik EEPren jardueren bilduma
2. 2009ko jarduera programa
3. 2009ko aurrekontuak
4. Langile-taldearen antolaketa
5. EEP eta EAE-ren arteko partaidetza hitzarmenaren 2009ko eranskina
6. 2008ko ikastetxeen proiektu deialdiaren azterketa eta onartzea
7. Tokiko aginteeek aurkeztutako eskaeren azterketa (EEP-rekin partaidetzak)
8. Obragintza publikoaren abrne diren projektuei dirulaguntza (hitzarmenetatik kanpo)
9. Beste gaiak

OUVERTURE DE SEANCE

Le Président rappelle l'ordre du jour :

1. Point sur les activités menées depuis le précédent conseil d'administration
2. Programme d'activités 2009
3. Examen et adoption du budget 2009
4. Organisation de l'équipe permanente
5. Annexe 2009 de la convention de partenariat avec la Communauté Autonomé d'Euskadi
6. Examen et adoption de l'appel à projets 2008 des établissements scolaires
7. Demandes d'aides financières présentées par les collectivités locales (convention OPLB)
8. Aides à apporter aux projets sous maîtrise d'ouvrage publique (hors convention)
9. Questions diverses

1) Azken Administrazio Kontseiluaz geroztik, eramandako jardueren bilduma

Azken Administrazio Kontseilutik eramanak izan diren ekintzen bilduma bat egiten du Presidenteak :

• Irakaskuntza

- Garatze eta egituratzeko alorretan 2008-2009 epealdirako bide-orria onartzeko prestatze lanak.
 - Aitzin-bilkura bat Ikuskari Jaunarekin
 - Bide-orri proposamenaren aurkezpena (2008/12/15ko gidaritza batzordea)
- Gune elebidun berrien irekitzeren azterketa (9 gune)
- Seaskarekin bilera
 - Gaia : Hezkunde Nazionala/Seaskaren arteko hitzarmena

• Euskal Autonomi Erkidegoarekin lan partaidetza

- Proposatutako aldaketei buruzko eztabaideak
 - Desberdintzea eragile nagusiak / deialdia
 - Ziurtatze egituraketa
 - Argitalpenari buruzko araudia

• Tokiko kolektibitateekin partaidetzak

- Gidaritza Batzordeak
 - Xiberoa
 - Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoa
 - Baxe Nafarroa

• Lehen haurtzaroa

- Labelizatze prozesua
 - Xiberoa
 - Senpere
- Profesionalizatze hitzarmenak
 - Ohakoa Biarritz
- CAF egiturarekin bilera
 - ↳ **CAF/EEP-ren arteko hitzarmenaren adosteko zailatasunak**

• Ziurtatze egituraketa

- Unibertsitatearekin hitzordua antolatzen ari
- Baliokidetza sistema : gogoeten abiatzea Eusko Jaurlaritzarekin
- Batzorde eratzailearen lana

• Argitalpenea

- Ipar Euskal Herriaren parte-hartzearen prestaketa Pariseko liburu saloinean, EKErekin partaidetzan

• EEP-ren web ataria

- Maketa grafikoaren bururatzea – irekitzea urtarril-otsailean

1) Point sur les activités menées depuis le dernier conseil d'administration

Le Président fait une présentation des activités menées depuis le dernier CA :

• Enseignement

- Travail préparatoire à l'adoption de la feuille de route OPLB 2008-2009 dans les chantiers développement et structuration de l'offre.
 - Réunion préparatoire avec L'Inspecteur d'Académie
 - Présentation du projet de feuille de route (Comité de suivi du 15/12/2008)
- Etude de faisabilité de l'ouverture de sections bilingues (9 sites potentiels)
- Rencontre Seaska
 - Objet : Projet Convention Education Nationale / Seaska

• Coopération avec la Communauté Autonome d'Euskadi

- Echanges sur les modifications proposées
 - Distinction Opérateurs majeurs / Appel à projets
 - Dispositif de certification
 - Nouveau règlement Edition

• Partenariats avec les Collectivités locales

- Comités de Pilotage
 - Communauté de communes Soule
 - Communauté de communes Sud Pays Basque
 - Communautés de communes de Basse Navarre

• Petite enfance

- Poursuite travail de labellisation
 - Soule
 - St Péé sur Nivelle
- Convention de Professionnalisation
 - Ohakoa Biarritz
- Rencontre CAF
 - ↳ **Difficultés dans le processus de validation de la convention CAF / OPLB**

• Dispositif de certification

- En cours de montage, prochaine rencontre avec l'université
- Système des équivalences : démarrage de réflexion avec Eusko Jaurlaritza
- Rythme régulier de travail du Comité de préfiguration

• Edition

- Préparation de la participation du Pays Basque au Salon du livre à Paris en collaboration avec l'ICB

• Plateforme Internet

- Finalisation de la maquette finale pour une ouverture en janvier – février

- **Hizkuntza kalitatea**
 - Hiztegi proiektua
 - Ekintzaren abiatzea Beñat Oyharçabal-en kudeantzapean
 - Iñaki ETXELEKU hartua izana 2008/12/08tik goiti
- **Elkarteko profesionalizazioa bidean laguntzea**
 - Euskal Irratiak Federazioa : azterketaren bururatzea
 - Ohakoa : azterketaren abiatzea
- **Hedabideak**
 - ETB3 (haurtzaro - gazteria) kate euskaldunaren hedatzea, Numéricâble sarearen bidez
 - Euskal hedabideen aldeko kanpaina : lehen fasearen bururatzea : hedabideen errealitate komertzialaren egoera eta kanpainaren abiatzea.
- **Qualité de la langue**
 - Projet Dictionnaire Français / Basque
 - Démarrage effectif de l'opération sous la Direction de Beñat Oyharçabal
 - Embauche d'Iñaki ETXELEKU au 08/12/2008
- **Aide à la professionnalisation des opérateurs associatifs**
 - Finalisation du Rapport d'Audit pour la Fédération Euskal Irratiak
 - Lancement Etude organisation associatif / Ohakoa
- **Médias**
 - Diffusion de la nouvelle chaîne bascophone ETB3 (Enfance - Jeunesse) du groupe EITB sur le BAB via Numéricâble
 - Clôture de la phase 1 de la Campagne des médias bascophones : Diagnostic de la réalité commerciale des médias et lancement de la campagne destinée aux prescripteurs.

2) 2009ko jarduera programa

Zuzendari Jaunak zehaztua izan zaien 2009 urterako jarduera programaren ildo nagusiak aurkezten dizkie Administrazio Kontseiluko kideei. Programa zehatza eranskinetan aurki daiteke (1. eranskina).

Lehendakariak bozketara ekartzen du 2009rako jarduera programa, aho batez onartua dena.

2) Programme d'activités 2009

Le Directeur commente les grandes lignes du programme d'activités 2009, présenté dans le détail aux membres du Conseil d'Administration. Celui-ci est annexé au présent relevé de décisions en annexe 1.

Le Président soumet au vote le programme d'activités 2009 qui est adopté à l'unanimité.



3) 2009ko aurrekontuak

Presidente Jaunak aurrekontuei buruzko dokumentu ezberdinak aurkezten ditu :

- **"2009ko Aurrekontuak" dokumentu bat**, (2. eranskina) buxetaren egituraketa zehazten eta proposatu erabakiak esplikatzen dituenak
- **Gastu eta sartzeen aitzinikuspena**, (3. eranskina) kontable postu ezberdinen arabera zehaztu orientabideen dokumentua deklinatzenten duena
- **Sintesi taula bat**, (4. eranskina) 2008. urteko aurrekontuen somatu erabilera eta 2009. urteko buxeta proiektua parekatzen dituenak.

2 066 000 €ko 2009. urteko aurrekontua, 2008. urteko aurrekontuetan oinarritzen da, jaz bezalako aurrekontu bat, baina **aitzinkontu gehigarri** bat eskatuz hiztegi proiektuarentzat, Eskualde, Departamendu eta EKHEari (107 500€ orotara).

Eztabaidatuz geroz, 2008ko aurrekontuen proposamena aho batez onartua da.


3) Budget 2009

Le Président présente les divers documents relatifs au budget comportant :

- **Un document « Budget 2009 »** (annexe 2) décrivant la structure du budget et expliquant les choix proposés,
- **L'Etat Prévisionnel des Recettes et des Dépenses**, (annexe 3) déclinant le document d'orientation selon les différents postes comptables
- **Un tableau de synthèse** (annexe 4) mettant en regard l'exécution prévisible du budget 2008 et le projet de budget 2009.

Le budget 2009 est établi sur la base du budget 2008 et s'élève à 2 066 000 €, un budget à **moyens constants** avec toutefois une demande de **budget additionnel** pour le projet de dictionnaire auprès de la Région, du Département et du SIVU de Soutien à la Culture Basque (107 500€ au total)

Après débat, la proposition relative au budget 2008 est adoptée à l'unanimité.



4) Langile-taldearen antolaketa

EEPren sortzetik lau urte pasatu direnetik, ohartzen gara jarduerak anitzak direla eta eremu anitz hunkitzen dutela (ik. Jarduera programa) hauen artean irakaskuntza, proiektu deialdiaren bidez lagunten diren hizkuntza eragileak, Euskal Autonomia Erkidegoarekin den lankidetza, edo EEPk zuzenean edota eragile publikoekin partaidetzan eramatzen dituen hizkuntza jarduerak, hara nola aginte publikoen langileen etengabeko prestaketa plangintzak, lehen haurtzaroa, hizkuntza egiazapena, argitalpena, ETB katearen errebitzea, web gunea, hizkuntza kalitatea (Frantses / euskara hiztegi proiektua, hizkuntza baieztapena) elkarrekin profesionalizatzen laguntea, euskarazko hedabideen kanpaina, edota euskararen erabilera bizi sozialean... Eginkizun hauei gaineratzen zaielarik EEPren dokumentu guzien itzulpen lan betebehar handiak (hauek guziak elebidunak baitira beti).

Arlo desberdin hauek hizkuntza kargudunek segitzen dituzte, orotara 6 daude Zuzendari baten ardura pean. Lan zama ikusirik, eta eremu guziak hein berean lantzea ezinezkoa zela ikusirik, lehentasunak ezarri dira, haatik, arlorik "bazterrera" ez uzten saiatuz.

Gaur egungo lan-taldearen antolaketa :

- Zuzendari bat
- Sei hizkuntza kargudun, barne, idazkaritza lanak segurtatzen dituen pertsona

Perspektibak :

Frantses/Euskara hiztegi proiektuaren baitan, kontratu mugatuko bi lexikografo lanpostu sortu dira (2010eko agorrila arte). Lehen postua 2008ko abenduan hasi da (hastapen batean, proiektua gauzatu ahal izateko egin beharreko aitzin-urrats teknikoak aztertu eta obratuko ditu). Bigarrena irailean, itzulpen lanak hasi beharko direlarik lan taldean sartuko da.

Ondorioz, EEPko lan-taldea 8 pertsonara, eta irailetik goiti berantenez, bigarren lexikografoa hasiko delarik, 9ra pasako da

POSTU ALDAKETAK ETA SORRERA

EEPk beregain dituen eginkizunak sakonkiago garatzeko borondateak, lan-taldeko kide permanenteen lan-zamaren emendatzeak eta Herrietako euskara teknikarien kopuruarenak (EEP baita sarearen animazioa segurtatzen duena), EEPko lan-taldearen berrantolaketa dakarte, alde batetik, **hizkuntza kargudun postu bat Zuzendari-orde postua bilaka araziz**, Erakundearen eginkizunen zuzendaritzan eta lan-taldearen kudeaketan Zuzendariaren laguntzeko ; **Zuzendaritza idazkari lanpostu oso bat sortuz** bestalde.

4) Organisation de l'équipe permanente

Quatre années après son démarrage, nous constatons que le champ d'activités de l'OPLB est vaste et touche de très nombreux domaines variés (cf. Programme d'activités) tels que l'enseignement, le soutien aux opérateurs linguistiques via l'appel à projet, la coopération avec la Communauté Autonome d'Euskadi ou encore les actions linguistiques menées directement par l'OPLB et/ou en partenariat avec les opérateurs publics dans les domaines de la formation des agents territoriaux, de la petite Enfance, du dispositif de certification, de l'édition, de la réception de la Chaîne ETB, de la plate forme Internet, de la qualité de la langue (projet dictionnaire Français/Basque, dispositif de validation linguistique...), de l'aide à la professionnalisation des opérateurs associatifs, de la promotion des médias bascophones, de l'utilisation du basque dans la vie sociale, auxquelles activités s'ajoutent un important travail de traduction de tous nos documents (ceux-ci étant systématiquement bilingues).

Ces différents chantiers sont suivis par les chargés de missions, au nombre de 6, avec le pilotage du Directeur. Devant l'ampleur de la tâche et l'impossibilité d'investir chacun des domaines avec la même intensité, des priorités ont été établies en essayant toutefois de ne pas laisser de chantier en « panne ».

Organisation de l'équipe actuelle :

- Un Directeur
- 6 chargées de mission dont une qui assure aussi les fonctions d'assistante de direction

Perspectives :

Deux postes de lexicographes en CDD (jusqu'à Août 2010) ont été créés dans le cadre de la mise en œuvre du projet de dictionnaire Français/basque (Décision 2007), un premier poste ouvert en Décembre 2008 (le lexicographe recruté est chargé dans un premier temps d'étudier et de mettre en œuvre les pré requis techniques au projet) et un second en Septembre au démarrage effectif des travaux de traduction.

L'équipe de l'OPLB passe ainsi à 8 personnes, puis à 9 à partir de Septembre au plus tard lorsque le second lexicographe sera recruté.

TRANSFORMATION ET CREATION DE POSTE

La volonté d'investir plus en profondeur l'ensemble des missions à la charge de l'OPLB, la montée en charge de l'équipe des permanents et celle des techniciens de la langue basque des collectivités (dont l'OPLB assure l'animation du réseau) amène l'OPLB à réorganiser son équipe permanente d'une part, **en transformant un poste de chargé de mission en un poste de Directeur- adjoint** chargé de seconder le Directeur dans le pilotage des missions de l'Office et le management de l'équipe professionnelle ; et d'autre part **en créant un poste d'assistante de direction à temps plein**.

Lan-talde profesionala gisa horietan osatua izanen da beraz : 10 posturekin, horietatik 8 permanentes :

- Zuzendari bat
- Zuzendari orde bat
- Bost hizkuntza kargudun
- Idazkari bat
- Bi lexikografo

L'équipe professionnelle de l'OPLB sera donc ainsi constituée 10 postes dont 8 permanents :

- Un Directeur
- Un Directeur adjoint
- Cinq chargés de mission
- Un(e) assistant (e)
- Deux lexicographes

2009ko urtarrilaren 01an proposatua den antolakuntza:

- Zuzendari-orde postuaren izendapena :

Bernadette SOULÉ Zuzendari-orde posturako izendatzea proposatua da, gaur egun lan-taldean betetzen dituen eginkizunak kontutan hartuz, berezikiago EEPren dokumentu estrategikoen definizioan: irakaskuntzan, Hizkuntza Politika Proiektuan... Kargu hartzea molde progresiboa iraganen da, gaur egun Bernadette Soulé Hizkuntza Kargudun gisa dituen "ekoízpen" eginkizunen jarraikortasunaren segurtatzeko gisan, (irakaskuntza, ETBren errezibitza, hizkuntza kalitatea) eta irakaskuntzako 2008-2009 bide orriari loturik sorturiko jarduera berriak direla eta (Euskara eta euskarazko irakaskuntzaren garapen eta egituraketa atala).

Berrantolaketa honek ez du eragin aitzin-kontuan, izan ere, Bernadette SOULÉ aldiz berean segurtatuko baititu Zuzendari-orde eta Hizkuntza Kargudun eginkizunak.

- Zuzendaritza idazkari postuaren kontrataztea

Antolaketa berrian, gaur egun Hizkuntza Kargudun eta Zuzendari idazkaritza lana segurtatzen duen Maider Bergouignanek, Hizkuntza Kargudun postua debora osoz segurtatuko du. Ondorioz proposatua da **Zuzendari idazkaritza baten kontrataztea deialdi publiko bidez**.

Elementu hauek kontutan izanik, Administrazio Kontseiluak **aho batez onartzen ditu proposamen horiek** eta **Presidenteari mandatu ematen dio** izendapen eta kontratazioaren antolaketaren obratzeko.

Organisation proposée au 01 Janvier 2009 :

- Nomination au poste de directrice adjointe :


Il est proposé de nommer **Bernadette SOULÉ en qualité de Directeur adjoint**, compte tenu de son rôle particulier assuré jusqu'à ce jour au sein de l'équipe, notamment dans les travaux de définition des documents stratégiques de l'OPLB : enseignement, projet de politique linguistique... Cette prise de fonction s'effectuera de manière progressive, du fait de la nécessité d'assurer la continuité des activités de « *Production* » assurées à ce jour par Bernadette Soulé en qualité de chargée de mission (enseignement, réception ETB, qualité de la langue...) et des activités nouvelles à sa charge dans le domaine de l'enseignement liées avec la feuille de route 2008-2009 (Volet Développement et structuration de l'offre de l'enseignement du basque et en basque).

Cette réorganisation n'a pas d'incidence budgétaire puisque Bernadette SOULÉ assurera à la fois la charge de Directeur Adjoint et celle de chargée de mission.

- Recrutement sur le poste d'assistante de direction

Dans la nouvelle organisation, Maider Bergouignan, actuellement Chargée de mission et Assistante de Direction, assurera dorénavant une fonction de chargée de mission à plein temps. Aussi, il est proposé de procéder au **recrutement d'un(e) assistant(e) par appel à candidature**.

Sur la base de ces éléments, le Conseil d'Administration **approuve à l'unanimité les propositions effectuées** et **donne mandat au président** pour mettre en œuvre les modalités de nomination et recrutement suscités.



5) EEP eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko partaidetza hitzarmenaren 2009ko eranskina

2007ko otsailaren 07an, Euskararen Erakunde Publikoko Lehendakariak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuak euskararen aldeko hizkuntza politika baten eremuan bi erakundeek garatu nahi duten partaidetzaren kuadroa 2010 arte finkatzen duen Hitzarmena izenpetu zuten.

Urteroko ekimenen definitzeko epe bereko Eranskinen izenpetzea aurreikusten du Hitzarmen honek.

2008ko Eranskinak (5. eranskina), honen helburua berrikitan bildu den Gidaritza Batzordearen aipagaiak izan delarik, zera aurreikusten du besteak beste :

- elkartea eta eragile pribatuentzako Proiektu Deialdi baten antolaketa. Proiektu Deialdi honentzako araudi proiektu bat ere dokumentu honi atxikirik doakio. Berritasun bat : argitalpen sailari dagokion araudi berezitu bat;
- Helduen euskalduntze-alfabetatzearen esparruan, hizkuntza-gaitasunaren mugaz bi aldeetako egiaztagirien baliokidetzaren definitze eta antolaketa

Hauetaz aztertu ondoren, Euskararen Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoarekin aurreikusiriko **ekimenen programa, 2009ko Eranskinean dagoen bezala onartzetzen du** eta Lehendakariari baimena ematen dio Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuarekin 2009ko Eranskinaren izenpetzeko.

5) Annexe 2009 de la convention de partenariat avec la Communauté Autonome d'Euskadi


Le 07 Février 2007, le Président de l'Office Public de la Langue Basque et la Conseillère à la Culture du Gouvernement Basque signaient une convention fixant jusqu'en 2010, le cadre de partenariat que les deux entités se proposent de développer dans le domaine de la politique linguistique en faveur de la langue basque.

Il est prévu dans cette convention, la signature d'une Annexe annuelle définissant les activités opérationnelles correspondantes.

L'Annexe 2009 (Cf. annexe 5) dont le projet a fait l'objet d'une réunion récente du Comité de suivi de la Convention de Partenariat prévoit entre autre :

- l'organisation de l'Appel à Projets pour les associations et opérateurs privés. Un projet de règlement de cet Appel à Projets est également joint à ce document. Nouveauté pour 2009 : la rédaction d'un règlement spécifique pour le volet édition ;
- Dans le domaine de l'apprentissage de la langue basque aux adultes, définition et organisation des dispositifs d'équivalence de certification de langue basque de part et d'autre de la frontière

Après examen, **le Conseil d'Administration approuve le programme d'activités** prévu avec la Communauté Autonome d'Euskadi tel que décrit dans l'Annexe 2009 ainsi que le règlement de l'Appel à Projets 2009 et autorise le Président à signer l'Annexe 2009 avec la Conseillère à la Culture du Gouvernement Basque.



6) 2008ko ikastetxeen proiektu deialdiaren azterketa eta onartzea

Euskarazko irakaskuntza eskaintzen duten eskoletako zuzendaritza eta irakasle taldeek, erregularki abiatzen dituzte eskola eremutik kanpo euskararen erabilpenaren bultzatzeko ekimenak : beste eskolekiko trukaketak, ahozkotasunaren bultzatzeko kultura tailerrak, animazio desberdinak ...

Testuinguru soziolinguistique kontutan hartuz, sail elebidunean eskolatuak diren ikasleen gehiengo nagusia familia eraldunetatik heldu delarik, gisa honetako egitasmoek azkarki laguntzen dute sail elebidunen egonkortzen, izan ere, eskola ordutegitik haratago euskararen erabilpenaren jendarteratzeko gaitasuna baitute, eskolaren baitan euskararen baliatzea sustatuz, kurtsoetatik kanpo, bide batez ikasleen motibapena lagunduz bai eta familia eta irakasleena ere.

Elkarte eta eragile pribatuentzako Proiektu Deialdia ez baita eskolen eskaerei irekia, eskolek eramandako hizkuntza proiektuen laguntzeko, 2007ko abenduaren 19ko Administrazio Kontseiluan **40 000 €ko** fondo baten martxan ezartzea erabaki zen.

Ikastetxeei 2008ko ekainean proiektu deialdiaren idekitzea jakinarazi zaie. 2008-09 ikasturtean iraganen diren euskarazko proiektuak errezipitzeko azken epea 2008ko irailaren 25ean finkatu zen.

2008ko azaroaren 12an Cohéré anderea, euskararen irakaskuntzaren kargudun ikuskaria, Sarraillet jauna Errektoretzako euskararen irakaskuntzako kargudun, Haran jauna aholku pedagogikoa eta EEP bildu dira proiektu guziak aztertzeko.

Azterketa honen ondorioz, sailkapen bat osatu du batzordeak eta dirulaguntza esleipen proposamen bat eratu du (6. eranskina)

Proposamena azertuz geroz, Administrazio Kontseiluak aho batez onartzan du eratutako dokumentua eta dokion esleipen proposamena.

6) Examen et adoption de l'appel à projets 2008 des établissements scolaires

Les équipes de direction et enseignantes des établissements scolaires qui dispensent un enseignement en basque, initient régulièrement des projets d'école visant une utilisation du basque en dehors du cadre strictement scolaire : échanges avec d'autres écoles, ateliers culturels d'expression basque, animations diverses...


Dans un contexte sociolinguistique où la grande majorité des élèves scolarisés dans les filières bilingues sont issus de familles non bavaroises, ce type de projets contribuent largement à consolider les filières d'enseignement du basque car ils ont pour effet de socialiser l'utilisation de la langue au-delà du temps scolaire, de susciter la pratique de la langue au sein des établissements scolaires, en dehors des cours et encouragent par la même la motivation des élèves, des familles et des enseignants.

L'appel à projets réservé aux association et opérateurs privés n'étant pas ouvert aux demandes émanant des établissements scolaires, il a été décidé lors du Conseil d'Administration du 19 décembre 2007 de mettre en place en 2008 un fonds d'aide aux projets linguistiques portés par les établissements scolaires, d'un montant de **40 000 €**. Les établissements ont été informés en juin 2008 de l'ouverture de l'appel à projets. La date limite de réception des projets qui se mettront en œuvre au cours de l'année scolaire 2008-2009 avait été fixée au 25 septembre 2008.

Un comité technique d'instruction réunissant Mme Cohéré, Inspectrice de Circonscription en charge de l'enseignement du basque, M. Sarraillet Chargé de mission d'Inspection au Rectorat, M. Haran Conseiller pédagogique et l'OPLB ont instruit les dossiers le 12 novembre 2008.

Ce travail partenarial d'instruction a conduit à un classement des projets et à l'élaboration d'une proposition d'affectation des aides (cf. annexe 6).

Après examen, le Conseil d'Administrtaion adopte à l'unanimité la proposition d'affectation des aides.



7) Tokiko aginteeak aurkeztutako eskaeren azterketa (EEP-rekin partaidetzak)

- Haurtzaindegia – Xiberoko Herri Elkargoa :

2007ko abenduaren 4an, asteartea, Xiberoko Elkargoko Kontseiluak erabaki du « harrera elebidun » baten obratzea, 2008ko urtarilean zabaletu zen Mauleko harrera anitzeko egitura eta 2008ko irailean ireki zen Aloso antena. Lehen haurtzaroaren egituraren baitan harrera elebidun bat obratzeko, EEPren, Herri Elkargoko hautetsien eta lanean ari den talde profesionalaren arteko hainbat topaketa iragan dira. 2008ko Apirilaren 16ko Administrazio Kontseiluak onartutako labelizazio dispositiboko hiru labelak aztertuz gero, Herri Elkargoak C labela hautatu du

2008ko azaroan, Boscq jaunak, Xiberoko Herri Elkargoko Lehendakariak gutun bat igorri dio Brisson jaunari, EEPko Lehendakariari, lehen haurtzaroaren egiturako langileen euskarazko formakuntzaren arloan, kofinantzatzeko posibilitateen berri ukaiteko.

Presidente Jaunak proposaturik (7. eranskina), **Administrazio Kontseiluak aho batez onartzentzu :** ebaluazioen arabera lehen haurtzaroaren egiturako langileen euskarazko formakuntzaren kostu orokorra 150 000 €koa izanik, kostu horren **%50** kofinantzatza – formakuntza eta ordezkapenen kostua –, hots, **75 000€ko parte hartza** bere gain hartza, honela banaturik : **25 000€/urteko.**

Euskararen Erakunde Publikoaren parte hartza egitasmo horren kofinantzaketan deuseztatuko da definitua izan den formakuntza planak ez baditu C ereduko kargu kaieran finkatu helburuak betetzen.

- Herri Elkargoekin partaidetza hitzarmenak :

EEP eta Herri Elkargoen arteko partaidetza hitzarmenaren helburu bikoitza (Herriko bizian euskararen erabilpenaren sustatzea eta Herri edo Herri Elkargo mailan, euskararen sustapenerako ekimenen abiatze edo segitza) bete ahal izateko, Elkargoek animazio funtzioa segurtatu behar dute. Horretarako finkatuak izan ziren, 2007an, Herri Elkargoekiko sei hitzarmen. 2007ko urriaren 24ko eta abenduaren 19ko bi Administrazio Kontseiluek euskararen inguruko ekintza zehatzen garapena sustengatzea erabaki zuten, hainbat komunikazio eta formakuntza egitasmoen finantzaketa partekatuz.

2009an, Errobi, Hego Euskal Herri eta Xiberoa Herri Elkargoek animazio eta komunikazio egitasmo berri batzuk aurkeztu eta euskarazko formakuntza planei jarraipena emateko asmoa dute (8., 9. eta 10. eranskinak)

7) Demandes d'aides financières présentées par les collectivités locales (convention OPLB)

- Pôle petite enfance – Communauté de communes de Soule :

Le mardi 4 décembre 2007, le Conseil Communautaire de la Communauté de communes de Soule-Xiberoa a acté la mise en place « d'un accueil bilingue », au sein du pôle petite enfance comprenant le multi accueil de Mauléon ayant ouvert en janvier 2008, et son antenne d'Alos ouverte en septembre 2008. Afin de mettre en œuvre un accueil bilingue au sein du pôle petite enfance, plusieurs rencontres ont eu lieu entre l'OPLB, les élus de la Communauté de Communes et l'équipe professionnelle en place. Après examen du dispositif de labellisation adopté par le conseil d'Administration du 16 avril 2008, la Communauté de Communes a opté pour le label C.

En novembre 2008, le Président de la Communauté de Communes de Soule, M. Boscq, adresse un courrier à M. Brisson, Président de l'OPLB, le sollicitant pour connaître les possibilités de cofinancement de la formation en langue basque des professionnelles du pôle petite enfance.

Sur proposition du Président (cf détail en annexe 7), le Conseil d'Adminisritraion **décide de cofinancer à hauteur de 50%** du coût total estimé à 150 000€ la formation en langue basque des professionnelles de pôle petite enfance – coût formation et remplacement – **soit une participation de 75 000€ à raison de 25 000€/an.**

La participation de l'Office Public de la Langue basque au co-financement de ce projet sera annulé si le plan de formation défini ne permet d'atteindre les objectifs définis dans le cahier des charges du modèle C.

- Conventions de partenariat avec les Communautés de communes :

Afin de permettre aux collectivités d'assurer la fonction d'animation nécessaire à la réalisation du double objectif des conventions de partenariat signées entre l'OPLB et la collectivité (promouvoir l'usage du basque dans la vie municipale et relayer ou initier à l'échelle du territoire communal ou intercommunal des actions de promotions de la langue basque) six conventions avaient été établies en 2007 avec les Communautés de Communes. Les Conseils d'Administration du 24 octobre et du 19 décembre 2007 décidaient de soutenir le développement des activités concrètes autour de la langue basque, par le cofinancement de projets de formation et de communication.

En 2009 les Communautés de Communes d'Errobi, Sud pays Basque et Xiberoa ont présenté de nouveaux projets d'animation et de communication et poursuivre les projets de formation en langue basque (annexe 8, 9 et 10)

Elementu desberdin horiek kontuan harturik, Administrazio Kontseiluak erabakitzentz du ondoko eskaerei aldeko erantzuna ematea :

- Ondorioz, animazio jarduera hauek diruz lagunduko dira :

- **Errobi Herri Elkargoa**
 - **Eguberriko kontalarien egitasmoari dagozkion gastuen %50a, 600€ arte.**
- **Hego Lapurdiko Herri Elkargoa**
 - **Sortu berriei buruzko sentsibilizazio kanpainaren %50a, 2 100€ arte**
- **Zuberoako Herri Elkargoa**
 - **16/25 urtekiei zuzendu hizkuntza ikastaroen antolaketarako gastuen herena, 1 350€ arte.**
 - *Oharra* : Erabaki hau iaz hartua izan den erabakiaren ildoan kokatzen da, AEKren baitan kontabilitate analitiko bat apailatu arte, finantzaketa gurutzatzeak saihesteko. Apailamendu hori martxan da eta elkarte-eragileen profesionalizaztea laguntzeko hitzarmenaren baitan kokatzen da.

- Elkargo publikoetako langileen formakuntza plangintzentzat ere finanatzamendua partekatzea proposatzen da :

- **Errobiko Herri Elkargoa eta baziide diren udalak**
 - **Jarduerei dagozkien gastuen heren bat, 14 000€ arte**

Hego Lapurdiko Herri Elkargoak aurkeztu duen 2008ko haurrentzako katalogoari dagokionez aldi, honako hau erbakitzentz :

- **%50a finantzatzea, 709,81€ arte** (2007an bozkatu diru-kopurutik gelditzen dena),
- **ondoko baldintza errespetatzen bida** : 2009ko urtarrilean, **jardueraren ebaluaketa** bat egitea, Elkar eta finantzatzen duten erakundeak bertan izanen direlarik.

A l'appui de ces différents éléments, le Conseil d'Administration décide de répondre favorablement au demander suivantes

- Il s'agit donc de cofinancer les opérations d'animation ci-après :

- **Communautés de Communes Errobi**
 - A hauteur de **50%** des coûts correspondants pour **le projet conteurs de Noël**, dans la limite de **600 € de subvention**
- **Communautés de Communes Sud Pays Basque**
 - A hauteur de **50%** pour **le projet campagne de sensibilisation nouveaux nés**, dans la limite de **2 100 € de subvention**
- **Communautés de Communes Soule Xiberoa**
 - A hauteur du **tiers des coûts**, dans la limite de **1 350 € de subvention**, pour **l'organisation des stages de langue organisés au bénéfice des 16/25ans**.
 - *Remarque* : Cette décision est proposée dans la logique de celle qui a été prise l'année dernière dans l'attente de la mise en place d'une comptabilité analytique au sein d'AEK afin d'éviter les croisements de financements. Cette démarche est en cours et fait l'objet d'un conventionnement d'aide à la professionnalisation des acteurs associatifs.

- De cofinancer les opérations de formation des salariés des collectivités publiques

- **Communautés de Communes Errobi et communes adhérentes**
 - A hauteur du **tiers des coûts** correspondants dans la limite de **14 000 € de subvention**

Par contre, pour ce qui est du projet de catalogue pour enfants 2008, présenté par la Communauté de Communes Sud Pays Basque il est décidé :


- de financer **à hauteur de 50%** et dans la limite de **709,81 €** (montant qui reste de l'enveloppe votée en 2007),
- **à la condition de réaliser** en janvier 2009 une **évaluation de l'opération**, en présence de Elkar et des organismes financeurs.

Datu guziak eskutan izanik, 0/5 urtekoentzako euskarazko argitalpenaren Gidaliburuaren ebaluaketa barne (Obralaria : EEP 2008), 2009an **euskarazko argitalpenaren sustapenerako estrategia** bat abian jartzen ahalko dugu, hizkuntza politikaren obratzean parte hartzen duten erakunde publikoek eta liburugintzaren ekonomiako eragileek adostua eta partekatua.

Bestalde, eskoletan antolatu eta Hego Lapurdiko Herri Elkargoak aurkeztu « Idazkera tailerrak » egitasmorako, , **Lehendakariak proposatu du ekintza hori Ikastetxeen deialdira bideratzea.** Hala, proposamena Akademia Ikuskaritza eta EEP biltzen dituen Batzorde Teknikoak aztertua izanen da.

Ayant toute les données en mains, y compris l'évaluation du Guide de l'édition en langue basque des 0/5ans (Maîtrise d'Ouvrage OPLB 2008), nous pourrons mettre en place en 2009 **une stratégie promotionnelle de l'édition en langue basque, concertée et partagée** par les organismes publics travaillant à la mise en œuvre de la politique linguistique et les acteurs de l'économie du livre.

Par ailleurs, pour le projet « Ateliers d'écriture », organisé dans les écoles et présenté par la Communauté de Communes Sud Pays Basque, **le Président a proposé d'instruire cette action dans le cadre de l'appel à projets établissements scolaires** et de soumettre ainsi cette proposition au Comité technique d'instruction réunissant l'Inspection Académique et l'OPLB.



8) Obragintza publikoaren abrne diren proiektuei dirulaguntza (hitzarmenetatik kanpo)

2006ko abenduan onartu Hizkuntza Politikarako Proiektuan, eragile publikoek (hauen artean elkargoekin finkatu partaidetzeak) zuzenki abiatu eta obratu hizkuntza ekintzak garatzea aurrekusten da.

Horretarako, aurrekontuko lerro bat (120 000 €koak) sortua izan da 2008ko aurrekontuan, ekimen horiek sustengatzeko asmoz.

I) Aurkeztutako egitasmoak

Bi eskaera kokatzen dira antolamendu honen esparruan :

Urketako Herria

- Euskarazko formakuntza AELAE (Ama Eskoletako Lurraldeko Agente Espezializatu) batentzat, 2008ko eskola sartzear gela elebidun berri bat zabaldu baita herrian, eta eskolan berean langile elebidun bat ere ez baita.
 - 32 ikasle sail elebidunean eskolatuak
 - Formakuntza plangintza :
 - 30 aste x 3 oren = 90 oren
 - 22 oreneko 4 ikastaro trinko = 84 oren
- OROTARA 174 oren**
- Formakuntza plangintza :
 - Formakuntzaren kostua 174 oren x 15 € = 2 610 €
 - Ordezkapenaren kostua 174 oren x 15 € = 2 610 €
- OROTARA = 5 220 €**

Errobiko Erreka Sindikata

- Bi langileren euskarazko formakuntza, sindikataren funtzionamendu eta komunikazio elebidunaren praktika bururaino eramateko :
 - Langile bakoitzarentzako formakuntza plangintza :
 - 30 aste x 3 oren = 90 oren
 - 20 oreneko 5 ikastaro trinko = 100 oren
- OROTARA 190 oren**

- Aurrekontua :

Formakuntzaren kostua 190 oren x 15 € = 2 850 € langileko

OROTARA = 5 700 €

8) Aides à apporter aux projets sous maîtrise d'ouvrage publique (hors convention)

Dans le Projet de Politique Linguistique adopté en décembre 2006, il est prévu de développer des actions linguistiques directement initiées et mises en œuvre par les opérateurs publics (dont les partenariats établis avec les collectivités).

A cette fin, une ligne budgétaire (120 000 €) a été créée sur le budget 2008, dans le but de soutenir ces initiatives.

I) Les projets présentés

Deux demandes s'inscrivent dans le cadre de ce présent dispositif :

Commune d'Urcuit

- Formation à la langue basque d'une ATSEM, suite à l'ouverture à la rentrée 2008 d'une nouvelle classe bilingue dans la Commune et dans l'absence totale de personnel bilingue sur l'établissement scolaire.
 - 32 élèves scolarisés dans la filière bilingue
 - Plan de formation :
 - 30 semaines x 3 heures = 90 heures
 - 4 stages intensifs de 22 heures = 84 heures
- TOTAL 174 heures**
- Plan de formation :
 - Coût de la formation 174 h x 15 € = 2 610 €
 - Coût du remplacement 174 h x 15 € = 2 610 €
- TOTAL = 5 220 €**

Syndicat de rivière de la Nive

- Formation à la langue basque de deux agents, afin de pouvoir mener à bout la pratique de fonctionnement et de communication bilingue du syndicat :
 - Plan de formation pour chaque agent :
 - 30 semaines x 3 heures = 90 heures
 - 5 stages intensifs de 20 heures = 100 heures
- TOTAL 190 heures**
- Budget :
Coût de la formation 190 h x 15 € = 2 850 par agent
- TOTAL = 5 700 €**

II) Eskaeren eta proposamenen azterketa

1) Urketako Herria

Urketakoko herriak Errobi-Aturri Herri Elkargoan parte hartzen baitu, EEPk azken honetako Lehendakariari proposatu dio usaiako antolamendua abian jartzea. Horren arabera, elkargoen (Herri Elkargoen eta kide diren Herrien) formakuntza plangintza EEPren eta dagokion lurraldearen arteko hitzarmenen espruan kokatzen da. Azpimarratzeko da hitzarmen horiek izenpetuak direla partaidetzan eraman diagnostiko-lan bat egin ondoren. Herri Elkargoko hautetsiek dispositibo hori abian jartzeko beharra ikusiko balute ere, txostenetan zein heinetan den ikusirik, momentuz ezinezkoa da. Halere, Urketako eskaerari erantzuteko asmoz, proposatua da Urketako AELAEa Baionako Herriak antolatu duen AELAEei eskaini formakuntza taldean sartzea. Azken hau ados da.

EEPri eskatu zaion dirulaguntzari dagokionez, kontuan harturik haur ttipienengan euskararen erabilera lehentasun bat dela, **honako hau erabakitzten da :**

AELAEaren formakuntzaren kostuaren 50% finantzatzea, 1 305€ arte.

2) Errobiko Erreka Sindikata

Sindikatuk proposatzen du hizkuntza formakuntza profesional bat antolatzea komunikazioaz arduratzentzen diren bere bi langileentzat, geroari begira komunikazioa osoki elebiduna izan dadin.

Beraz **honako hau erabakitzten da bî langile horien hizkuntza formakuntzaren kostuaren heren bat finantzatzea 1 900€ arte**, ondoko baldintza errespetatua bada : proposatua den formakuntza plangintzak bat egiten behar du agerian utzi hizkuntza helburuarekin.

Diagnostikoa EEPko lantaldeak gauzatuko du..

II) Analyse des demandes et propositions

1) Commune d'Urcuit

La Commune d'Urcuit faisant partie de la Communauté de Communes Nive Adour, l'OPLB a proposé au Président de cette dernière, de mettre en place le dispositif habituel dans lequel le plan de formation des collectivités (Communautés de Communes et Communes adhérentes), s'inscrit dans le cadre de conventions signées entre l'Office et le territoire concerné suite à un travail de diagnostic des besoins mené en partenariat. Même si les élus de la Communauté de Communes convenaient de la nécessité de mener cette démarche, l'état d'avancement du dossier ne le permet pas pour l'instant.

En revanche, pour répondre à la demande d'Urcuit, il est proposé d'intégrer l'ATSEM d'Urcuit au groupe de formation dédié aux ATSEM, organisé par la Ville de Bayonne. Cette dernière est d'accord.


Pour l'aide demandée à l'OPLB, compte tenu que la présence de l'Euskara auprès des plus petits est une priorité, il est **décidé de cofinancer à hauteur de 50%**, dans la limite de **1 305 €** de subvention, le **coût de la formation de l'ATSEM**.

2) Syndicat Errobi

Le syndicat se propose d'organiser une formation linguistique professionnelle à deux de ses agents chargés de la communication afin que celle-ci soit dans l'avenir strictement bilingue.

Aussi, il est **décidé de cofinancer, à hauteur du tiers de son coût**, dans la limite de **1 900 € la formation linguistique de ces deux agents**, sous réserve d'adéquation du plan de formation proposé, avec l'objectif linguistique affiché.

Ce diagnostic sera réalisé par l'équipe de l'OPLB.



9) Gainerateko gaiak

President Jaunak aurrekontuetan bi erabaki-aldaaketa proposatzen ditu :

Erabaki-aldaaketa zbk. 6 :

Aurrekontu-kridtuen aldaaketa :

Pasatu :

- 665,51 € (622 220) "zerbitzu-sariak egitasmoak" postutik
- 6834,49 € (641 100) "lansariak" postutik

Sekzio honetara :

- (613 100) "higiezin-alokairua" : 7 500 €

Erabaki-aldaaketa zbk.7 :

Aurrekontu-kridtuen aldaaketa :

Pasatu :

- 2 600 € (657 221) "zerbitzu-sariak egitasmoak" postutik
- 3 400 € (641 100) "lansariak" postutik

Sail honetara :

- 218300 "bulegoko materiala - informatika" 6000€

Proposamen horiek aho batez onartuak dira.

→ Bilkura arratsaldeko 6:00tan bukatzen da.

9) Questions diverses

Le Président propose l'adoption de deux décisions modificatives au budget :

Décision modificative n°6 :

Modification de la répartition des crédits budgétaires suivante :

Passer :

- 665,51 € du poste budgétaire (622 220) Honoraires projets
- 6834,49 € du poste budgétaire (641 100) Salaires, appointements

Vers cet article :

- (613 100) Location immobilière 7 500 €

Décision modificative n°7 :

Modification de la répartition des crédits budgétaires suivante :

Passer :

- 2 600 € du poste budgétaire (657 221) Honoraires projets
- 3 400 € du poste budgétaire (641 100) Salaires, appointements

Vers cet article :

- 218300 Matériel de bureau et informatique 6000€

Modifications adoptées à l'unanimité.

→ la séance est levée à 18H00.



2008/12/17-ko EEP-ren Administrazio Kontseiluko bilkuraren erabakien bildumaren eranskinak

1. Eranskina : 2009ko jarduera programa
2. Eranskina : 2009ko aurrekontuak
3. Eranskina : Sartzeen eta gastuen aitzinikuspena
4. Eranskina : Sintesia taula
5. Eranskina : EEP-EAE arteko partaidetza hitzarmenaren 2009ko eranskina
6. Eranskina : Ikastetxeen deialdia - erabakiak
7. Eranskina : Lehen haurtzaroa - proiectua - Xiberoa
8. Eranskina : Errobi Herri elkargoko eskaera
9. Eranskina : Hego Lapurdi Herri elkargoko eskaera
10. Eranskina : Xiberoa Herri elkargoko eskaera

Annexes au relevé de décisions de la réunion du Conseil d'Administration de l'OPLB du 17/12/2008

- Annexe 1 : Programme d'activités 2009
- Annexe 2 : Budget 2009
- Annexe 3 : Etat prévisionnel des recettes et des dépenses
- Annexe 4 : Tableau de synthèse
- Annexe 5 : Annexe 2009 à la convention de partenariat OPLB-CAE
- Annexe 6 : Décisions – appel à projet établissements scolaires
- Annexe 7 : Procédure d'accompagnement – pôle petite enfance Soule
- Annexe 8 : Sollicitation Com. Com Errobi
- Annexe 9 : Sollicitation Com. Com Sud Pays Basque
- Annexe 10 : Sollicitation Com. Com Xiberoa

1. ERANSKINA

EEPren 2009ko jarduera programa

1. Interes Publikoko Elkargoaren berriztapenaren prestaketa

Interes Publikoko Elkargoaren (IPE) sorrerako hitzarmena 2010eko uztailaren 31an bukatzen da. 2009ko urtean IPEaren berriztapenaren prestaketan jardunen da.

- ↳ Kanpoko aditu batek ebaluaketa eginkizun baten gauzatzea :
 - EEPk dituen eginkizunei begira, eramandako jardueren diagnosia/bilduma,
 - 2010 ondorenerako gomendioak
- ↳ 2010eko agorriletik goiti IPEaren antolaketa izanen denarentzat, EEPko partaideen arteko aitzin-elkarrizketak :
 - Eginkizunak
 - Ahalak
 - ...

2. Irakaskuntza

- ↳ Irakaskuntzaren eskaintzaren garapena
- ↳ Irakaskuntzaren eskaintzaren egituraketa kualitatiboa
 - ⇒ Euskarazko irakaskuntzaren garapenari eta egituraketa kualitatibori doazkion lan ekintza programa finkatuko du 2008ko Abenduaren 15ean bilduko den Hezkunde Nazionalaren eta Kontseilu Nagusiaren arteko gidaritza batzordeak (batzordeari doakiolarik programaren definitzea eta EEPri obratzea).
